

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

3/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «3/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta beteazari dezaten.

Donostia, 2020ko azaroaren 6a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia. (5886)

HITZAURREA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemak, herrialde garatu gehienek ildo beretik, informazio betebeharrak ugari hartzen ditu gaur egun barnean; zenbaitetan autonomoak dira obligazio horiek, eta beste batzuetan zerga jakin batzuk atxikitzeko edo kontuan sartzeko betebeharrarekin lotuta daude, zergapekoek gauzatzen dituzten tributu arloko eragiketa garrantzitsuei dagokienez. Obligazio horiek ezartzearekin batera, Zergen Foru Administrazioa behar dituen kontrol tresnez hornitu da arian-arian, lortutako informazioari erabilera hobea eman eta informazio horretatik emaitza onenak lortzeko, eta zergapekoen multzo osoari kontrol maila bera ezartzeko asmoz, edozein dela ere haien forma juridikoa edo irabazten dituzten etekinen tipologia, zergak ordaintzeko obligazioa zuzen betetzen dutela berma dadin.

Hala ere, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) «Salmenten ezabapen elektronikoa: diru sarrera fiskalentzako mehatxua» (2013) izeneko txostenean aipatutako iruzur fiskal mota bereziak hautematen ari dira zerga agintaritzak askotan: bereziki, diru sarrera urriagoak adieraztea salmenta elektronikoa ezabatuz eta gastu ugariagoak adieraztea faktura faltsuak erabiliz. Horregatik, soluzio teknologikoak ezartzeko gomendatzen die ELGAK zerga administrazioei, halako ihes eta iruzur fiskalak hautemateko eta galarazteko.

Azken urteotan, gomendio horiek gure inguruko herrialde askotan gauzatzen ari dira, bertan zerga sistemak ezarri direlako batik bat azken kontsumitzaileekin lan egiten duten enpresaburu eta profesionalen saltokietako terminalak kontrolatzeko; duela gutxi, horrela egin da, esate baterako, Austriar, eta aurreko urteetan, Suediar, Poloniar, Portugalen eta Quebecen (Kanada), besteak beste.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 3/2020, de 6 de noviembre, por la que se establece la obligación de utilizar herramientas tecnológicas para evitar el fraude fiscal», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 6 de noviembre de 2020.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (5886)

PREÁMBULO

El sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en línea con los de gran parte de los países desarrollados, contiene en la actualidad un buen número de obligaciones de información, en algunos casos autónomas y en otros vinculadas a la obligación de retener o ingresar a cuenta de ciertos impuestos, en relación con las operaciones económicas con trascendencia tributaria que realizan los obligados tributarios. De manera paralela a la implementación de dichas obligaciones, la Administración tributaria foral se ha ido dotando de los instrumentos de control necesarios para hacer el mejor uso y obtener los mejores resultados de la información proporcionada, persiguiendo someter al mismo nivel de control al colectivo de obligados tributarios, con independencia de su forma jurídica o de la tipología de los rendimientos que perciban, a fin de garantizar el correcto cumplimiento de su deber de contribuir.

Sin embargo, tal y como puso de manifiesto la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos (OCDE) en su informe del año 2013 titulado «Supresión electrónica de ventas: una amenaza para los ingresos fiscales», muchas autoridades fiscales están detectando tipos particulares de fraude fiscal; en particular, una declaración inferior de ingresos mediante la supresión de ventas electrónicas y una declaración superior de gastos mediante la utilización de facturas falsas. Es por ello por lo que la OCDE recomienda a las administraciones fiscales implementar soluciones tecnológicas efectivas para evitar y detectar dichos tipos de evasión y fraude fiscales.

Estas recomendaciones se están materializando en los últimos años en la implantación en muchos países de nuestro entorno de sistemas tributarios de control de los terminales punto de venta de las personas y entidades empresarias y profesionales que operan fundamentalmente con las personas consumidoras finales, como ha sucedido recientemente en Austria, y en años anteriores en Suecia, Polonia, Portugal y Quebec (en Canadá), entre otros.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, Euskadiko Iruzer Fiskalaren kontrako Borrokarako Batzordeak –hiru foru ogasunek osatzen dute, Eusko Jaurlaritzaren koordinaziopean– Iruzzurren aurka borrokatzeko 2016ko Baterako Planean adierazi zuenez, azken urteetan tresna informatiko berezien erabilera ugartu da jarduera sektore jakin batzuetan, salmentak ezkutatze eta kontabilitateko egoera orriak manipulatzeko. Horiek izaten direnez zerga aitopenak egiteko oinarria, jardunbide horiei aurka egiteko baterako estrategia bat prestatzeko konpromisoa hartu dute, jarduera sektore jakin batzuetan fakturatzeko sistemen kontrola egiteko tresnen ezarpena aztertu ahal izan dadin.

Estrategia horrekin bat etorri, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) kudeatzeko sistema berria ezarri zitzaizen zergadun jakin batzuei –munta nahiko handiko eragiketa bolumenak dituzten pertsona juridikoak gehienak– berehalako informazio hornidura izeneko sisteman –BIH sisteman– oinarrituta.

Foru arau hau onartuta, Gipuzkoan aurrerapauso kualitatibo bat egiten da jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen tributazioa kontrolatzeko neurri dagokienez, haien tamaina edo eragiketa bolumena edozein dela ere. Izan ere, zergadunak behartuta geratzen dira fakturazio sistemetan neurri teknologiko aurreratuak erabiltzera tresna teknologiko berriak baliatuta. Kontrol sistema horri TicketBAI sistema deitu zaio.

Horrela, ezartzen dituen betebeharren ondorioz, TicketBAI sistema informatiko berriak ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzen ditu. Sistema hori Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Zerga Administrazioek elkarrekin sustatua da, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaz.

Aurrekoarekin bat etorri, TicketBAI obligazio berria berdin konfiguratu eta ezartzen da bai sozietateen gaineko zergaren foru arauan eta bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru arauan, eta, igorpenez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan tributatzen duten establezimendu iraunkorrei ere aplikagarri zaie.

Ildo horretan, pertsona fisikoen eremuan, jarduera ekonomikoak egiten dituztenak soilik izango dira obligaziodunak; pertsona juridikoen eremuan, aldiz, ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak egiten dituzten guztiek izango dute obligazio hori, alde batera utzita jarduera horiek ustiapen ekonomiko baten barruan edo eremu horretatik kanpo egiten diren. Horri dagokionez, ohartarazi behar da ezen entitate salbuetsiak eta irabazi asmorik gabeko entitateak ez direla behartuta egongo obligazio hori betetzera, eta partzialki salbuetsitako entitateak, berriz, errentak zerga oinarrian integratu beharra dakarten eragiketen-gatik bakarrik egongo direla horretara behartuta.

Foru arau honen bidez, aipatutako foru arauetan jasotzen da zer baldintza bete behar dituen sistema informatikoak ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak erregistratzean, fakturak edo eragiketak justifikatzen dituzten bestelako frogagiriak jaulkitzean, eta informazio hori Gipuzkoako Foru Aldundiara bidaltzean. Sistemaren berezitasunak erregelamendu bidez garatu eta ezarzea gerorako uzten da.

Bai jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen bai pertsona juridikoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerga Administrazioari helarazi beharko diete sistema informatiko horren erabilerean ondorioz sortzen den informazioa. Informazioa berehala bidali beharko da, eta, beraz, faktura jaulkitzearekin batera, hari buruzko informazioa jasotzen duen fitxategi bat bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Horrek esan nahi du, alde batetik, obligazioa eragiketaz eragiketa eta ia berehala gauzatu dela, eta, bestetik, Zerga Administrazioak aldi berean izan-

En el año 2016, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal en el País Vasco, constituida por las tres Haciendas Forales con la coordinación del Gobierno Vasco, pone de manifiesto en su Plan Conjunto de lucha contra el fraude que, durante los últimos años, en determinados sectores de actividad, han proliferado la utilización de herramientas informáticas específicas para la ocultación de ventas y la manipulación de los estados contables, que son la base sobre la que se confeccionan las declaraciones tributarias, y, a fin de luchar contra dichas prácticas, se comprometen a elaborar una estrategia común que permita analizar la implantación de herramientas de control de los sistemas de facturación en determinados sectores de actividad.

En consonancia con dicha estrategia, se llevó a cabo la implantación de un nuevo sistema de gestión del impuesto sobre el valor añadido, IVA, para determinados contribuyentes, en su mayor parte personas jurídicas con volúmenes de operaciones de cierta dimensión, basado en el suministro inmediato de información, sistema conocido como SII.

Con la aprobación de la presente norma foral se realiza un avance cualitativo en Gipuzkoa en la implementación de la citada estrategia de control de la tributación de todas las personas físicas que desarrollan actividades económicas y de las personas jurídicas, con independencia de su tamaño o volumen de operaciones, mediante la obligatoriedad del uso de medidas tecnológicas avanzadas por parte de los contribuyentes a través de nuevos instrumentos tecnológicos en los sistemas de facturación, lo que viene a denominarse sistema TicketBAI.

Así, se establecen las obligaciones derivadas de la implantación del nuevo sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, denominado TicketBAI, que abordan conjuntamente las Administraciones tributarias de Araba/Álava, Bizkaia y Gipuzkoa con la colaboración del Gobierno Vasco.

En coherencia con lo anterior, la nueva obligación TicketBAI se configura y establece de manera idéntica en las Normas Forales del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, siendo también de aplicación por remisión a los establecimientos permanentes que tributan por el impuesto sobre la renta de no residentes.

En este sentido, mientras en el ámbito de las personas físicas tan sólo resultan obligadas aquéllas que realicen actividades económicas, en el ámbito de las personas jurídicas resultan obligadas todas las que realicen entregas de bienes y prestaciones de servicios, con independencia de que las mismas se realicen en el ámbito de una explotación económica o fuera de la misma. Advertir, en este sentido, que no estarán sometidas a la obligación las entidades exentas y las entidades sin fines lucrativos, y que las entidades parcialmente exentas sólo estarán obligadas por las operaciones cuyas rentas deban integrarse en la base imponible.

Mediante esta norma foral se incorporan a dichas normas forales los requisitos que el sistema informático debe cumplir en el registro de las entregas de bienes y prestaciones de servicios, en la emisión de las facturas u otros documentos que justifiquen las operaciones, así como en la remisión de dicha información a la Diputación Foral de Gipuzkoa. No obstante, se deja para un posterior desarrollo reglamentario el establecimiento de las especificidades del sistema.

Tanto en el caso de las personas físicas que realizan actividades económicas como en el de las personas jurídicas, la información generada con motivo de la utilización de este sistema informático deberá ser remitida a la Administración tributaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa. El envío de la información deberá ser inmediato, de forma que con carácter simultáneo a la emisión de la factura se remitirá a la Diputación Foral de Gipuzkoa un fichero con información relativa a la misma. Ello supone, de un lado, que la obligación se va a realizar operación por ope-

go duela informazio hori eskura, eta, zalantzarik gabe, horren ondorioz, etorkizunean modu erraz eta sinpleagoan bete ahal izango dituztela zergadunek beren zerga betebeharrak.

Alde horretatik, aipatzekoa da ezen, erregistroan bildu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazten zaion informazioaren barruan, eragiketa justifikatzen duen fakturan jasotako eragiketaren edo eragiketen xehetasunak agertuko direla, betiere datuen babesari dagokion mugarekin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koak, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babestu eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak, ezarritakoa betez.

Era berean, erabaki da etorkizunean erregistro bat egongo dela, bertan inskribatzeko bai aipatutako obligazioak betetzeko behar diren software bereziak eta bai horien garatzaileak. Erregistro horrek konfiantzazko hornitzaileen zerranda bat jarriko du zergadunen eskura; izan ere, bertan izena emanda daudenek konpromisoa hartuta egon beharko dute, erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuta, TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituen produktu bat emango dutela.

Nahitaezko sistema berri horren beste ezaugarrietako bat da orokortu egiten dela, halako moduz non, salbuespenez, zehaztuko baita zer kasu tasatutan geratuko den zergaduna –izan pertsona fisikoa izan juridikoa– ezarritako betebeharrak betetzetik salbuetsita. Salbuespen horiek erabatekoak izango dira batzuetan eta obligazio hori osatzen duen elementuetako bat betetzera mugatuko dira beste batzuetan, baina, nolahi ere, erregelamendu bidez garatuko dira.

TicketBAI sistemaren zutabeetako bat bezeroak edo eragiketaren hartzaileak hartzen duen eginkizuna da; izan ere, ematen zaion faktura edo tiket bakoitzean, QR kodeen irakurgailu baten bitartez egiaztatu ahal izango du faktura hori benetakoa den eta, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zaion. Horrela, zerga betebeharrak bete diren jakin ahal izango du.

Betebehar hori indarrean jartzeari dagokionez, adierazi behar da 2022tik aurrerako ondorioak izango dituela, baina, ezarri, pixkanaka pixkanaka ezarriko dela, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eta asistentzia teknikoak eskaini nahi duelako, zergadunak betebehar berrira ahalik eta erosoan eta errazen egokitu daitezten. Helburu horrekin, foru arauak xedapen iragankor baten bidez ezartzen du egutegi hori erregelamendu bidez garatuko dela.

Era berean, sistemaren nahitaezko ezarpena iritsi aurretik hura erabiltzea errazte aldera, xedapen gehigarri bakarrean epe bat ezartzen da zergadunak aukera izan dezan sistema bere borondatez erabiltzeko, haren zehapen araubidearen mende egon gabe. Epe hori 2021eko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta zergadun bakoitzaren nahitaezko ezarpen data iristen denean amaituko da.

Ongi jakinik nolako inpaktu ekonomikoa eskatuko duen egoitzapenak, dela fakturazio terminalen sistema berria ezartzeko, edozein modutakoa izanik ere, dela pertsona fisikoek eta juridikoek gaur egun ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak fakturatzeko erabiltzen dituzten sistema informatikoak ezartzeko, eta pertsona horien artean ahalik eta gehienak sar daitezten borondatez TicketBAI sistema indarrean jartzeko eta ondorioak izateko finkatu den eguna baino lehen, aldi baterako zerga pizgarriak xedatu dira sozietateen gaineko zergan, establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan. Hain zuzen ere, 100eko 30eko kenkaria ezartzen da kuotan, eta betekizun horretara egokitze egindako gastuek eta inbertsioek

ración y de forma casi instantánea y, por otro, que la Administración tributaria va a disponer de esa información simultáneamente, lo que, sin duda, redundará en una forma más fácil y sencilla de cumplimentar las obligaciones tributarias por parte de los contribuyentes en el futuro.

En este sentido, es reseñable que dentro de la información que incluye el registro y que se remite a la Diputación Foral de Gipuzkoa, constará el detalle de la operación u operaciones reflejadas en la factura que justifique la operación, con el límite, claro está, de la protección de datos en virtud de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE.

Así mismo, se determina la futura existencia de un registro en el que se inscribirán los software específicos necesarios para dar cumplimiento a las mencionadas obligaciones, así como las personas o entidades desarrolladoras de los mismos. Dicho registro servirá para poner a disposición de los contribuyentes un listado de personas y entidades proveedoras de confianza, ya que aquellas que se encuentren inscritas en el mismo deberán haberse comprometido, mediante la suscripción de una declaración responsable, a suministrar un producto que cumpla los requisitos del sistema TicketBAI.

Otra de las características de este nuevo sistema obligatorio es su generalización, de tal manera que se determinarán excepcionalmente supuestos tasados en los que el contribuyente, persona física o jurídica, quedará exento del cumplimiento de las nuevas obligaciones establecidas. Estas excepciones tendrán el carácter de exoneración total en algunos casos, quedando circunscritas, en otros supuestos, al cumplimiento de alguno de los elementos que integran dicha obligación, si bien las mismas se desarrollarán reglamentariamente.

Uno de los pilares del sistema TicketBAI es el papel que adquiere la persona o entidad cliente o destinataria de la operación, que podrá comprobar, en cada factura o ticket que le sea entregado, a través de un lector de código QR, si dicha factura es real y si, además, ha sido remitida a la Diputación Foral de Gipuzkoa, pudiendo de esta forma conocer si se han cumplido las citadas obligaciones tributarias.

En cuanto a la entrada en vigor de esta obligación, ha de advertirse que tiene efectos a partir de 2022, si bien su implantación efectiva se realizará de forma progresiva, a fin de ofrecer apoyo y asistencia técnica por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa para que los contribuyentes se adapten a esta nueva obligación de la forma más cómoda y sencilla posible. Con tal objeto, la norma foral incorpora una disposición transitoria que encomienda la fijación de tal calendario al desarrollo reglamentario.

Asimismo, para facilitar la utilización del sistema de manera previa a su implantación obligatoria, en la disposición adicional única se establece un periodo comprendido entre el 1 de enero de 2021 y la fecha de implantación obligatoria para cada contribuyente, durante el cual el contribuyente podrá voluntariamente hacer uso de dicho sistema sin estar sometido a su régimen sancionador.

Siendo conscientes del impacto económico que la adaptación requerida por el nuevo sistema de los terminales de facturación supone, en cualquiera de sus formas, sobre los sistemas informáticos que en la actualidad utilizan las personas físicas y jurídicas para facturar sus entregas de bienes o prestaciones de servicios, y a fin de que el mayor número de estas personas se incorporen de manera voluntaria con anterioridad a la fecha de la entrada en vigor y efectos del sistema TicketBAI, se establecen incentivos fiscales de carácter temporal en el impuesto sobre sociedades, en el impuesto sobre la renta de no residentes para los establecimientos permanentes y en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, en forma de deducción en la cuota de un 30 por 100, cuya base vendrá determinada

erabakiko dute kenkari horren oinarria zein izango den, muga jakin batzuekin; orobat, zergadunak ezarri zaizkien obligazio berriak betetzeko egin behar dituzten kostuak murrizteko baliok du kenkariak.

Bestalde, kontuan izanik bai kenkari hori eta bai txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitala laguntzeko kenkaria, zeina jasota ageri baita maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauan, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoan, pizgarri bat direla ekipo informatiko eta periferikoak erosteko, foru arau honetan aurreikusitako pizgarritik kanpo uzten dira zergadunek ekipo informatiko eta periferikoen erosketan egindako inbertsio eta gastuak baldin eta aurretik txikizkako merkataritzaren eraldaketa digitalerako kenkaria aplikatu badute. Gainera, azken kenkari horren zenbatekoa konputatuko da kenkari honen xede izan daitezkeen inbertsio eta gastuen gehieneko zenbatekoa zehazteko, betiere aurreko paragrafoan aipatutako mugen barruan.

ELGAK egindako gomendioei jarraituz -2013ko txosten horretan eta, duela gutxiago, «Ihes eta iruzur fiskalari heltzeko tresna teknologikoak» (2017) eta «Implementing online cash register: benefits, considerations and guidance» (2019) argitalpenetan- dagokion intentsitatearen araberako zehapen araubidea ezarri da ixteko tresna gisa, sozietateen gaineko zergan, establezimendu iraunkorren ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan ezarritako obligazioak ez betetzearen ondoriozko arau hausteekin lotuta. Ildo horretan, bi arau hauste eta lau zehapen zehaztu dira.

Lehen arau haustea informazio betebeharra ez betetzea izango da, eta desberdin zehatuko da ez-betetzea orokortua edo noizbehinkakoa den. Bigarren arau haustea, bestalde, ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien euskarri gisa balio duten softwarea eta artxibo informatikoak suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeko izango da, eta bi zehapen mota hartuko ditu barnean: bata zergadunarentzat, berak jokatu badu horrela, eta beste zehapen bat zergaduna ez den edozein subjektorentzat, softwarearen garatzailea nahiz hirugarren norbait izan, hark ere jokabide horretan esku hartu badu.

1. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua aldatzea.*

Lehen. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izateko, aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan:

Bat. VIII. tituluko II. kapitulua honela berrizendatzen da: «Betebehar formalak eta kontabilitate arlokoak. Kontabilizatu gabeko ondasunak eta eskubideak. Borondatezko birbalarazioak.»

Bi. 122 bis artikulua berria gehitzen da, eta eduki hau izan du:

«122 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabili beharra.

1. Zerga honetako zergadunak behartuta daude, erregelamendu bidez zehaztuko diren eskakizunen, mugen eta baldintzen arabera, sistema informatiko bat erabiltzera ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztiak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko, jarraian zerrendatutako eskakizunak betetz:

a) Ondasunak entregatu eta zerbitzuak ematen direnean, elektronikoki sinatutako fitxategi informatiko bat sortu beharko

por los gastos e inversiones que se realicen para la adaptación a dicho cumplimiento, con determinados límites; deducción que servirá para reducir los costes de cumplimiento a los que deberán hacer frente los contribuyentes con motivo de las nuevas obligaciones impuestas.

Por otra parte, habida cuenta de que la citada deducción y la deducción para la transformación digital del comercio minorista recogida en el Decreto Foral-Norma 5/2020, de 26 de mayo, sobre medidas tributarias coyunturales destinadas a la reactivación económica tras la emergencia sanitaria del Covid-19, incentivan ambas la adquisición de equipos informáticos y periféricos, se excluyen del incentivo previsto en esta norma foral las inversiones y gastos efectuadas en la adquisición de equipos informáticos y periféricos por aquellos contribuyentes que ya han aplicado la deducción para la transformación digital del comercio minorista. Además, el importe de esta última deducción computará a los efectos de determinar la cuantía máxima de inversiones y gastos que puedan ser objeto de la presente deducción, todo ello dentro de los límites a los que se ha hecho alusión en el párrafo anterior.

Como instrumento de cierre, y siguiendo las recomendaciones de la OCDE en el mencionado informe del año 2013, así como en los publicados más recientemente en 2017 -«Herramientas tecnológicas para abordar la evasión y el fraude fiscal»- y en 2019 -«Implementing online cash register: benefits, considerations and guidance»-, se establece un régimen sancionador de intensidad relevante, asociado a las infracciones derivadas del incumplimiento de las obligaciones establecidas en el impuesto sobre sociedades, en el impuesto sobre la renta de no residentes para los establecimientos permanentes y en el impuesto sobre la renta de las personas físicas. A este respecto, se especifican dos infracciones y cuatro sanciones.

Constituye la primera infracción el incumplimiento de la obligación de información, que será sancionada de forma diferente según el incumplimiento sea generalizado u ocasional. Constituye la segunda infracción, por su lado, la destrucción, borrado o manipulación del software y archivos informáticos que sirven de soporte a los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios, e incluye dos tipos de sanciones, una para el contribuyente cuando es él quien realiza esa conducta, y otra sanción para cualquier sujeto diferente del contribuyente que haya intervenido en dicha conducta, ya sea éste la persona o entidad desarrolladora del software o una tercera persona.

Artículo 1. *Modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.*

Primero. Con efectos a partir del 1 de enero de 2022, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Teritorio Histórico de Gipuzkoa:

Uno. El capítulo II del título VIII pasa a denominarse «Obligaciones formales y contables. Bienes y derechos no contabilizados. Revalorizaciones voluntarias.»

Dos. Se introduce un nuevo artículo 122 bis, con el siguiente contenido:

«Artículo 122 bis. Obligación de utilizar un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios.

1. Los contribuyentes de este impuesto estarán obligados, con los requisitos, límites y condiciones que se determinen reglamentariamente, a utilizar un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros informáticos que documenten todas las entregas de bienes y prestaciones de servicios que realicen, a través del cumplimiento de los requisitos que se enumeran a continuación:

a) Por las entregas de bienes y prestaciones de servicios, deberá generar un fichero informático firmado de forma electrónicamente.

du eragiketen faktura edo frogagiria jaulki aurretik, eta araudia-
ren arabera zehaztutako formatua, edukia eta ezaugarriak izan
beharko ditu.

Bereziki, beste informazio batzuen artean, honako hauek jaso
beharko ditu letra honetan aipatutako fitxategi informatikoak:

a') Eragiketa dokumentatzen duenaren aurreko fakturaren
edo frogagiriaren identifikazioa.

b') Egín den eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren da-
tuak, babestekoak direnak zainduta, Europako Parlamentuaren
eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 2016ko
apirilaren 27koak, Datu pertsonalen tratamenduari eta datuon
zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babestu eta
95/46 (EE) Zuzentaraua indargabetzen duenak, 9. artikuluan
aurreikusitakoa betez.

c') Hurrengo 2. apartatuan aurreikusitako baldintzak bete-
tzen dituen sistema informatikoaren edo softwarearen identifi-
kazioa, baita hura garatu duen pertsona edo entitatearena ere.

b) Zerga Administrazioari berehala bidali beharko dio au-
rreko a) letran xedatutakoaren arabera sortutako fitxategi infor-
matiko bakoitza.

c) Faktura edo frogagiria identifikatzeko kode bat eta «QR»
kode bat sartu beharko ditu eragiketaren fakturan edo frogagirian.

Foru arau honen 12. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren
entitate salbuetsiak eta irabazi asmorik gabeko entitateen arau-
bidea aplikagarri dutenak –Irabazi asmorik gabeko entitateen
zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei
buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan ezarritakoa–, ez
dira betebeharrak horren pean egongo.

Era berean, partzialki salbuetsitako entitateak, foru arau ho-
nen 12. artikuluko 2. apartatuan aipatuak, errentak zerga oina-
rrian integratu beharra dakarten eragiketengatik bakarrik egon-
go dira betebeharrak horren pean.

2. Aurreko apartatuan ezarritako obligazioa betetzeko, zer-
gadunek honako hauek erabili beharko dituzte:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako haien esku jar-
tzen duen aplikazio informatikoa, araudiaren arabera ezarritako
baldintzen eta mugen barruan, edo

b) Horretarako eraturako erregistroan inskribatuta dagoen
software bat. Era berean, erregistro horretan inskribatuta egon
eta erantzukizunpeko adierazpena sinatu duen pertsona edo
entitate batek garatutakoa izan beharko da.

Letra honetan aipatutako erregistroan, erregelamenduan
xedatutako baldintzetan egingo dira inskripzioak, inskripzio al-
daketak eta bajak.

Zergadunak berak garatu badu b) letra honetan aipatutako
softwarea, hark sinatu beharko du erantzukizunpeko adieraz-
pena eta aipatutako erregistroan inskribatu beharko du softwa-
rea.

3. Erregelamendu bidez, erregela bereziak ezarri ahal izan-
go dira, aurreko 1. apartatuan jasotako obligazioari dagokionez,
faktura eragiketen hartzaileek edo hirugarren pertsonak egiten
duten kasuetarako.

4. Fakturen edo frogagiriaren hartzaileei, faktura edo frog-
giri horiek jaulki dituzten zergapekoek 1. apartatuan adierazi
diren obligazioak bete dituzten egiaztatze aukera emango die
Zerga Administrazioak.

Erregelamendu bidez garatuko da egiaztapen hori nola
egingo den.»

nica, en el formato, con el contenido y con las características
que se especifiquen reglamentariamente, con carácter previo a
la expedición de la factura o justificante de sus operaciones.

En particular, el fichero informático al que hace referencia
esta letra deberá contener, entre otra información:

a') La identificación de la factura o justificante inmediata-
mente anterior a la que documente la operación.

b') Los datos de la factura o justificante de la operación re-
alizada, salvaguardando los protegidos en virtud de lo previsto
en el artículo 9 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento
Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la pro-
tección de las personas físicas en lo que respecta al trata-
miento de datos personales y a la libre circulación de estos
datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE.

c') La identificación del sistema informático o software utili-
zado que cumpla los requisitos previstos en el apartado 2 si-
guiente, así como de la persona o entidad desarrolladora del
mismo.

b) Deberá enviar a la Administración tributaria cada fi-
chero informático generado según lo dispuesto en la letra a) an-
terior de forma inmediata.

c) Deberá incluir un código identificativo de la factura o
justificante y un código «QR», en la factura o justificante de la
operación.

No estarán sometidas a esta obligación las entidades exen-
tas a que se refiere el apartado 1 del artículo 12 de esta norma
foral, ni aquéllas a las que les resulte de aplicación el régimen
de entidades sin fines lucrativos previsto en la Norma Foral 3/2004,
de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucra-
tivos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Asimismo, las entidades parcialmente exentas a que se re-
fiere el apartado 2 del artículo 12 de esta norma foral estarán
sometidas a esta obligación exclusivamente por las operacio-
nes cuyas rentas deban integrarse en la base imponible.

2. Para el cumplimiento de la obligación establecida en el
apartado anterior, los contribuyentes deberán utilizar:

a) La aplicación informática puesta a disposición por la Di-
putación Foral de Gipuzkoa a tal efecto, con las condiciones y lí-
mites que se establezcan reglamentariamente, o

b) Un software que se encuentre inscrito en el registro cons-
tituido a estos efectos, que deberá haber sido desarrollado por
una persona o entidad que se encuentre asimismo inscrita en
dicho registro y que haya suscrito una declaración responsable.

La inscripción, modificación de la misma y baja en el regis-
tro al que se refiere esta letra se producirá en los términos que
se dispongan reglamentariamente.

En los casos en los que sea el propio contribuyente quien
desarrolle el software al que hace referencia esta letra b) será
este quien deberá suscribir la declaración responsable e inscri-
bir el software en el mencionado registro.

3. Reglamentariamente podrán establecerse reglas espe-
ciales en relación con la obligación prevista en el apartado 1 an-
terior, para los casos en que la emisión de la factura se realice
por las personas o entidades destinatarias de las operaciones
o por terceras personas.

4. La Administración tributaria pondrá a disposición de las
personas o entidades destinatarias de las facturas o justifican-
tes la opción de verificar el cumplimiento de las obligaciones
previstas en el citado apartado 1 por parte de los obligados tri-
butarios emisores de dichas facturas o justificantes.

Reglamentariamente se desarrollará la forma en que se lle-
vará a cabo dicha verificación.»

Hiru. 133. artikulua honela idatzita geratzen da:

«133. artikulua. Arau haustek eta zehapenak.

Hurrengo artikuluan eta foru arau honen gainerako artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, zerga honetan ezartzen diren arau haustek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorak xedatutakoaren arabera zehatuko dira.»

Lau. 133 bis artikulua berria txertatzen da IX. tituluaren barruan, eta eduki hau izango du:

«133 bis artikulua. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko bat erabiltzeko obligazioarekin lotutako arau haustek eta zehapenak.

1. Tributuen arloko arau haustek izango dira:

a) Ez betetzea ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoa erabiltzeko obligazioa, foru arau honetako 122 bis artikuluan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako baldintzei eta eskakizunei jarraikiz.

b) Foru arau honetako 122 bis artikuluan aipatutako sistema informatiko, software, artxibo edo fitxategi informatikoak suntsitzea, ezabatzea edo manipulatzeko, dela eskuz, dela prozesu informatiko baten bidez.

2. Hauek izango dira aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustearekin lotutako zehapenak:

a) Oro har, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 20koa izango da, edo 20.000 eurokoa gutxienez.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino txikiagoa izan bada, urtebetera handituko da negozio zifrari dagokion magnitudea.

Jarduera ekonomikoa ekitaldian hasi bada, ekitaldi horri dagokion negozio zifrari erreparatuko zaio, eta ekitaldi hori urtebetetik beherakoa bada, laura hori kalkulatu da ekitaldi horretako negozio zifrari dagokion magnitudea urtebetera eramanez.

Subjektu arau hauslea letra honetan xedatutakoaren arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustea egin aurreko lau urteetan, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 30ekoa izango da, eta 30.000 eurokoa gutxienez.

b) Aurreko a) letran xedatutakoa gorabehera, ondasun entrega edo zerbitzu prestazio bati edo batzuei lotuta badago arau haustea, 2.000 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da araua urratu duen eragiketa bakoitza.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondoriozko zehapena ezingo da izan, inola ere, aurreko a) letran xedatutakoa aplikatu gero aterako litekeena baino handiagoa.

Subjektu arau hauslea letra honetan xedatutakoaren arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko a) letran aurreikusitako arau haustea egin aurreko lau urteetan, aurreko a) letrako lehen paragrafoan aurreikusitako zehapena ezarriko da.

3. Hauek izango dira aurreko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako arau haustearekin lotutako zehapenak:

a) Aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 20ren diruzko isun proportzionala, eta 40.000 eurokoa gutxienez.

Tres. El artículo 133 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 133. Infracciones y sanciones.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo siguiente y en los demás preceptos de esta norma foral, las infracciones tributarias en este impuesto serán sancionadas conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.»

Cuatro. Se introduce un nuevo artículo 133 bis, dentro del título IX, con el siguiente contenido:

«Artículo 133 bis. Infracciones y sanciones relacionadas con la obligación de utilizar un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios.

1. Constituyen infracciones tributarias:

a) El incumplimiento de la obligación de utilizar un sistema informático que garantice la integridad, conservación, trazabilidad, inviolabilidad y remisión de los ficheros que documenten las entregas de bienes y prestaciones de servicios en los términos y con los requisitos establecidos en el artículo 122 bis de esta norma foral y en sus disposiciones de desarrollo.

b) La destrucción, borrado o manipulación del sistema informático, software, archivos o ficheros informáticos, a los que hace referencia el artículo 122 bis de esta norma foral, ya sea manualmente o a través de un proceso informático.

2. Las sanciones asociadas a la infracción prevista en la letra a) del apartado 1 anterior, serán las siguientes:

a) Con carácter general, la sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 20 por 100 de su cifra de negocios en el ejercicio anterior, con un mínimo de 20.000 euros.

En el caso de que el ejercicio anterior hubiera sido inferior al año natural, se elevará al año la magnitud correspondiente a la cifra de negocios.

En el supuesto de inicio en el ejercicio de la actividad económica, se atenderá a la cifra de negocios correspondiente a dicho ejercicio, y si éste fuese inferior a un año, será el resultado de elevar al año la magnitud correspondiente a la cifra de negocios de dicho ejercicio.

Cuando el sujeto infractor hubiera sido sancionado de acuerdo con lo dispuesto en esta letra en virtud de resolución firme en vía administrativa dentro de los cuatro años anteriores a la comisión de la infracción prevista en la letra a) del apartado 1 anterior, la sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 30 por 100 de su cifra de negocios en el ejercicio anterior, con un mínimo de 30.000 euros.

b) No obstante lo dispuesto en la letra a) anterior, cuando el incumplimiento sea con respecto a una o varias entregas de bienes o prestaciones de servicios, la sanción consistirá en multa pecuniaria fija de 2.000 euros por cada operación con respecto a la cual se haya producido el incumplimiento.

La sanción resultante de lo dispuesto en el párrafo anterior en ningún caso podrá ser superior a la que derive de la aplicación de lo dispuesto en la letra a) anterior.

Cuando el sujeto infractor hubiera sido sancionado de acuerdo con lo dispuesto en esta letra en virtud de resolución firme en vía administrativa dentro de los cuatro años anteriores a la comisión de la infracción prevista en la letra a) del apartado 1 anterior, se impondrá la sanción prevista en el primer párrafo de la letra a) anterior.

3. Las sanciones asociadas a la infracción prevista en la letra b) del apartado 1 anterior, serán las siguientes:

a) Multa pecuniaria proporcional del 20 por 100 de su cifra de negocios en el ejercicio anterior, con un mínimo de 40.000 euros.

Zehapen hori ezingo da ezarri aurreko 2. apartatuko a) letran xedatutako zehapenarekin batera.

Aurreko ekitaldia urte naturala baino txikiagoa izan bada, urtebetera eramango da negozio zifrari dagokion magnitudea.

Jarduera ekonomikoa ekitaldian hasi bada, ekitaldi horri dagokion negozio zifrari erreparatuko zaio, eta ekitaldi hori urtebetetik beherakoa bada, zifra hori kalkulatu da ekitaldi horretako negozio zifrari dagokion magnitudea urtebetera eramanez.

Subjektu arau hauslea a) letra honen arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako arau haustea egin aurreko lau urteetan, diruzko isun proportzional baten bidez zehatuko da, eta aurreko ekitaldiko negozio zifraren 100eko 30ekoa izango da, eta 60.000 eurokoa gutxienez.

b) Zerga Administrazioak egiaztatzen badu softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak edo zergaduna ez den beste edozeinek parte hartu duela aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako suntsipenean, ezabapenean edo manipulazioan, subjektu arau hausletzat hartuko dira parte hartu duten pertsona edo entitate horiek ere, eta haiek guztiak zehatuko dira 40.000 euroko diruzko isun finko batekin.

Parte hartu duen subjektu arau hauslea b) letra honen arabera zehatua izan bada, administrazio bideko ebazpen irmo bat dela eta, aurreko 1. apartatuko b) letran aipatutako arau haustea egin aurreko lau urteetan, 60.000 euroko diruzko isun finko batekin zehatuko da.

c) Zergadunak softwarea garatu badu eta, horrekin batera, aurreko 1. apartatuko b) letran aurreikusitako arau haustea egin badu, apartatu honetako a) letran xedatutakoaren arabera zehatuko da arau hauste hori.

Apartatu honen ondorioetarako, pertsona edo entitate batek aurreko 1. zenbakiko b) letran aipatutako suntsipenean, ezabapenean edo manipulazioan parte hartu duela ulertuko da, baldin eta, besteak beste:

- Sistema informatikoa, softwarea, edo artxibo zein fitxategi informatikoak aldatu baditu.
- Sistema informatikoaren edo software, artxibo edo fitxategi informatikoen gaineko kontrola badu edo izan badu nolabait.
- Aipatutako suntsipena, ezabapena edo manipulazioa egiteko sistemak, bitartekoak edo metodoak ipini edo jarri baditu beste pertsona edo entitate batzuen eskura.
- Aipatutako suntsipena, ezabapena edo manipulazioa egiteko jarraibideak adierazi, eman edo erakutsi baditu.
- Berez suntsipen, ezabapen edo manipulaziotzat hartua izateko nahikoa garrantzi izan gabe ere, hark egindako edo egin gabeko zerbait prozesu horren parte izan bada eta, beste pertsona edo entitate batzuek egin edo egin ez dutenarekin batera, horren ondorioa aipatutako suntsipena, ezabaketa edo manipulazioa izan bada.

4. Artikulu honetan ezarritako arau hausteak eta zehapenak bateragarriak izango dira 2/2005 Foru Arau Orokorrak, martxoaren 8koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzkoak, 206. artikuluan aurreikusitakoekin.

Hala ere, aurreko 2. apartatuan aurreikusitako zehapenetako bat ezartzen denean, ez da bidezkoa izango Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 206.2.b) artikuluaen bigarren paragrafoan aurreikusten duen zehapena ezartzea.

5. Aurreko 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoaren arabera ezarritako zehapenei aplikatu egingo zaie, hala badagokio, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 192.5 artikuluan aurreikusitako murrizketa.»

La aplicación de esta sanción será incompatible con la aplicación de la sanción establecida en la letra a) del apartado 2 anterior.

En el caso de que el ejercicio anterior hubiera sido inferior al año natural, se elevará al año la magnitud correspondiente a la cifra de negocios.

En el supuesto de inicio en el ejercicio de la actividad económica, se atenderá a la cifra de negocios correspondiente a dicho ejercicio, y si éste fuese inferior a un año, será el resultado de elevar al año la magnitud correspondiente a la cifra de negocios de dicho ejercicio.

Quando el sujeto infractor hubiera sido sancionado conforme a esta letra a) en virtud de resolución firme en vía administrativa dentro de los cuatro años anteriores a la comisión de la infracción a que se refiere la letra b) del apartado 1 anterior, la sanción consistirá en multa pecuniaria proporcional del 30 por 100 de su cifra de negocios en el ejercicio anterior, con un mínimo de 60.000 euros.

b) Cuando la Administración tributaria compruebe que en la destrucción, borrado o manipulación a que se refiere la letra b) del apartado 1 anterior, ha intervenido la persona o entidad que ha desarrollado el software o cualquier otra distinta del contribuyente, se considerará asimismo a las citadas personas o entidades intervinientes como sujetos infractores, y todas ellas serán sancionadas con multa pecuniaria fija de 40.000 euros.

Quando el sujeto infractor interviniente hubiera sido sancionado conforme a esta letra b) en virtud de resolución firme en vía administrativa dentro de los cuatro años anteriores a la comisión de la infracción a que se refiere la letra b) del apartado 1 anterior, será sancionado con multa pecuniaria fija de 60.000 euros.

c) Cuando el contribuyente haya desarrollado el software y a su vez haya cometido la infracción prevista en la letra b) del apartado 1 anterior, ésta se sancionará según lo dispuesto en la letra a) de este apartado.

A los efectos de este apartado, se considerará que una persona o entidad ha intervenido en la destrucción, borrado o manipulación a que se refiere la letra b) del apartado 1 anterior, entre otros supuestos, cuando:

- Haya alterado el sistema informático o software, archivos o ficheros informáticos.
- Haya tenido o tenga, de alguna forma, el control sobre el sistema informático o software, archivos o ficheros informáticos.
- Disponga o ponga a disposición de otras personas o entidades, sistemas, medios o métodos para las citadas destrucción, borrado o manipulación.
- Haya dictado, facilitado o mostrado instrucciones para las citadas destrucción, borrado o manipulación.
- Realice una acción u omisión que, aunque por sí sola no tenga entidad suficiente para ser considerada destrucción, borrado o manipulación, se trate de una acción u omisión que forma parte de dicho proceso y que, unida a la actuación u omisión de otras personas o entidades, conlleva las citadas destrucción, borrado o manipulación.

4. Las infracciones y sanciones establecidas en este artículo serán compatibles con las previstas en el artículo 206 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

No obstante, cuando se imponga una de las sanciones previstas en el apartado 2 anterior, no procederá la imposición de la sanción prevista en el segundo párrafo del artículo 206.2.b) de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

5. A las sanciones impuestas conforme a lo dispuesto en los apartados 2 y 3 anteriores les resultará de aplicación, en su caso, la reducción prevista en el apartado 5 del artículo 192 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.»

Bigarrena. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izateko, hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan, eduki hau duena:

«Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatikoaren ezarpena sustatzeko kenkaria.

1. Foru arau honen 122 bis artikuluan aipatutako beharrikunak betetzen dituen sistema informatiko bat erabiltzera behartutako zergadunek 2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetan egindako inbertsio eta gastuen 100eko 30 kendu ahal izango dute beren kuota osotik, sistema horren ezarpenarekin erlazionatuta badaude. Inbertsio eta gastu horiek honako hauek izan beharko dute:

a) Behar diren ekipoak eta terminalak erostea, baita horiekin lotutako softwarea eta periferikoak ere, foru arau honetako 122 bis artikuluan aipatutako obligazioa bete ahal izateko, instalazio eta ezarpen gastuak ere barne.

